



KHERAU

munduan ortozik

Kherau taldea 2010ean sortu zuten lau bizkaitarrek, lehendik ere ezagunak eta lagunak, musika proiektu komunetan ibilitakoak baitira. Ibon Ordoñezek eta Iker Lope de Bergarak orain dela hamar urte egin zuten topo eta hor dago Kherau taldearen lehen ideiarene azterna laguntasunaren iturritik begiratuta. Musikazale



KHERAU
munduan ortozik

amorratuak, Euskal Herriko musika tradizionalaren eta musika tresnen sakoneki ezagutza dute. Zaletasun berberak batu ditu eta erabaki dute bidea ematea Kherau taldeari. Interesgarria da taldekideak beste zein musika taldeetan ibili diren jakitea: Ibon Ordoñez (Gartxot, Ruaille Buaille, soinu teknikari eta hainbat diskotan kolaborazioak egin ditu), Gaizka Andollo (Karramarro, Albokale, Tirauki), Iker Lope de Bergara (Lamien Arnasa, Lutxanako Dultzaina Eskola, Urgabe, Korrontzi, txistu eta alboka irakaslea), Aitor Esteban Etxebarria (Nihil, Apnea, Kandela, Aritz Ogiza, Yavhe, bertsolaria) eta diskoa bukatu bezain laster bosgarren kidea lotu zaie, Alex Garcia. Kherau taldekoek musikaren aniztasunak erabili dituzte euren aurreko taldeetan: rocka, power-rock, popa, plaza taldea, bakarlariak, folk-rocka, folk tradizionala... Kherau taldekoek musikaren aniztasunetik folk tradizionalari ekarpena egingo diote, sakonketa modu jostalariz janzteko.

Kherau taldearen lehenengo diskoa "Munduan ortozik" Ibon Ordoñezek grabatu du Amurrioko Kukuzubi estudioan (Araba) 2010ean. Kike Morak nahastu eta masterizatu du Bilboko K.M.T. estudioan 2010eko irailean. Kherau eta Kike Morak egin dute musika ekoizpena. Musikari gonbidatuen alorrean, Eneritz Gorritxategik trikia jo du eta Isabel Sierrak trikia eta koruak egin ditu. Hainbat luthierren laguntza jaso dute musika tresnak bere modurik egokienean egon zitezten grabaketa ordurako.

Kherau hitzak euskal ijitoen hizkeran "egin" esan nahi du. Kherau taldearen lehen diskoa "Munduan ortozik" da, hamaika abestietatik sei herrikoak dira (Erresifola eta El Rossinyol -Katalunia-, Ostalerra, Maritxu, Jaun Baruak, Amak ezkondu ninduen) baina honek ez dio kenduko inolako musika meriturik taldeari. Jatorrizko abestiak zein bertsiok sonoritate berean ildokatzen dira non bouzouki irlandarra eta flauten oinarri erritmikoa kajoiek eta baxuek gordetzen duten, Kherau taldearen "Munduan ortozik" diskoaren musikaren ezaugarri nagusia hor kokatzen da baina horri gehitu behar zaio ahots goxo baten tinbrea, trikiaren melodikotasuna eta albokaren indarra. Kherau taldearen musikaren izpiritua folk tradizionalaren altzoan datza hari ekarpen alai eta jostalariak gehituz. Kherau taldearen adorea musikaren erakargarritasunean dago jarrita, musikarekin transmititu eta, eurei bezala, jendeari kemen eman nahi diote. Kherau taldeak ongi pasatu nahi du musika egiten duen bitartean, nahiz eta musika herrikoei konponketak egin biribiltzeko poztasuna, hausnarketa garaikidea, eta inoiz ez tradizioaren gainetik egoteko gogoia. Kherau taldearen mamia folk tradizionalaren zorroa handitzea da eta gustura egitea garrantzitsua da, tresnen maisutasunen gainetik. Kherau: sorkuntza kolektiboa folk tradizionalaren bideak ildokatuz, berrituz.

KHERAU: AKUSTIKOA, INDARTSUA ETA BEREZKO NORTASUNA DUENA.

Kajoiak, baxuak eta bouzouki irlandarrak osatzen duten zimendu erritmiko sendoa dautzatelarik, flauten eta trikiaren melodiak garatzen dira ahots eta landutako koruekin batera.

KHERAU TALDEAK FOLKAREN BI IKUSPEGIAK BATZEN DITU: TRADIZIOAN OINARRIA ETA BERONI EGIINDAKO HAUSNARKETA GARAIKIDEA.

Melodia zaharretatik zein sortu berrietatik abiatuz, gure kantei interpretazio garaikidea ematen saiatzen gara, tradizioa eta originaltasunaren arteko erdibidea bilatuz. Jotzen ditugun kanteak indarra eta berezko nortasuna izan ditzaten gura dugu.

KHERAU TALDEAREN "MUNDUAN ORTOZIK" DISKOAK KAMPORA ATERATZEKO GOGOIAK EZIN DITU EZKUTATU.

Munduan ortozik: horrelakoak baikara eta geure musika ere horrelakoa izatea gura baitugu: xumea eta zuzenekoa, bertuosismotik eta sofistikazioetatik aldentzen dena.

KHERAU BITAN ZATITUA: ABESTI BERRIAK ETA BERTSIOEN KOIROIKETA SAKONAK.

Kherau taldean jotzen dugu ondo pasatzeko helburuarekin. Abiatzen gaituen lehengaia gutariko edonoren kanta berria zein tradiziozko abestia izan daiteke. Lehengai hori edozein dela ere, geure nortasuna ematen ikasi dugulakoan gaude. Disko honetan, sarri jo diren gure folkloreak hainbat kanta jorratu ditugu, hala nola, Maritxu, Ostalerra edota Amak ezkondu ninduen. Tamaina hartzen saiatu gara baita ikuspegi desberdin batetik ikusi ere. Lortu ote dugu? Ederto pasa dugu ahaleginean, horretan zalantzarik ez.

GAIZKA ANDOLLO: kajoia eta darbouka


AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA: baxu elektrikoa

IKER LOPE DE BERGARA: albokak, txirulak eta ahotsa

IBON ORDOÑEZ: ahotsa, bouzouki irlandarra, gitarra, mandolina, bodhrán, panderoa, baxua, djembé, kajoia, udu

ALEX GARCIA: trikia

ritxi aizpuru (2010eko azaroaren 26a)



baga-biga musika ideiak
telf. 618 072 076 /026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com